

## **Jesus sufritzen dutenei askatasunaren Berri Ona ematera bidalia izan da (Lk 4, 14-21)**

*Kontalaria:*

*Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta inguru hartan guztian zabaldu zen haren berri. Hango sinagogetan irakasten zuen, denek goraipatzen zutela.*

*Nazaretera joan zen, bera hazi zen herrira, eta larunbatean sinagogan sartu zen, ohi zuenez, eta irakurgaia egitera zutitu. Isaias profetaren liburua eman zioten eskura eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:*

*Jesus:*

*Jaunaren espiritua nire gainean dago, berak bainau sagaratu behartsuei berri ona adierazteko; berak nau bidali gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera ea zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera.*

*Kontalaria:*

*Liburua itxi, laguntzaileari eman eta eseri egin zen; denak sinagogan begira-begira zeuzkan eta honela hasi zitzaien:*

*Jesus:*

*Gaur bete da profezia hau entzuten didazuenontzat.*

**Jaunak esana**